

ESKOLA JARDUERAREN FUNTZIONAMENDU ARAUAK

Irakasleen inguruko arauak

- 1) Orduategia
- 2) Gela
- 3) Atsedenaldiak
- 4) Materiala
- 5) Informatika
- 6) Ikasturtearen hasierako laguntzak
- 7) Zaintzak
- 8) Irteera eta gelaz kanpoko ekintzetarako laguntzak
- 9) Laguntza gelan kasu berriak ebaluatzeko jarraitu behar den protokoloa
- 10) Egoera gatazkatsuetan ikasleriarekin jarraitzeko protokoloa
- 11) Familiak
- 12) Eskola hustea
- 13) Ikastaroak eta lehiaketak

Familien inguruko arauak

- 1) Sarrerak eta irteerak
- 2) Hutsegiteak
- 3) Osasuna eta garbitasuna
- 4) Hitzorduak eskatzeko
- 5) Datuak
- 6) Eskolaz kanpoko ekintzak
- 7) Iradokizunak eta kexak

Jantokiko arauak

- 1) Ikasleak
- 2) Familiak
- 3) Arauak ez betetzea
- 4) Kuotak
- 5) Onartze irizpideak
- 6) Irakasleen edo jantokiko langileen greba

Eskolako liburuak doan izateko programa

Eskola 2.0

ESKOLA JARDUERAREN FUNTZIONAMENDU ARAUAK

Irakasleen inguruko arauak

1. Sarrera eta irteerako ordutegiak

- ✓ Sarrerak 8:55etan eta 14:55etan egiten dira, 9:00etan eta 15:00etan saioak hasteko.
- ✓ Irteerak mailakatuak izango dira
 - 2 urte13:00 16:25
 - 3 urte12:50 16:30
 - 4 urte12:53 16:23
 - 5 urte12:55 16:25
 - Lehen H..13:00 16:30
- ✓ Gela-aldaketetan ordukoak izan behar dugu atzerapenak hurrengo saioetan eta zaintzak egin behar diren geletan eragina dutelako.
- ✓ Irteeretan Haur Hezkuntzako eta Lehenengo Zikloko umeak ateraino lagunduko ditugu. eta Bigarren eta Hirugarren zikloko behoko solairuko eskaileretaraino. Horretaz gain hezkuntza premia bereziak dituzten Lehenengo Zikloko umeak familiareneraino eramango ditugu, eta hauen ardura hezitzailea eta azken saioan egon den irakaslearena izango da

2. Gela

- ✓ Ordezkariek izendatu. Ordezkarien bilerak eskusiba batean egingo dira; Ordezkariren bat ez bada jantokian gelditzen, garaiz abisatu da familiak jakin dezan egun horretan beranduago irtenge dela.
- ✓ Irakasle mahaiaren hirugarren tiraderan ordezkentzako Dokumentuen Protokolo Karpeta eta eskularruak egon behar dute.
- ✓ Eskolako ebakuazioaren informazioa ikasgelako atearan ondoan agerian egon behar du.
- ✓ Alergiak .Alergiak dituzten ikasleak oso ondo identifikatuta egon behar dute Horretarako gelako atearan atzeko aldean orri hori bat ipiniko da , alergikoaren datuak eta zein neurri eduki behar diren azalduz.
- ✓ Gela hauetan alergia eragiten duen edozein elementu ekidin egingo da

3. Lehen Hezkuntzako atsedenaldiak

- ✓ Atsedenaldietako txandetan ordukoak eta zaintzetan oso zorrotzak izan, Talde pedagogikoan balorazioa sarritan egingo da.
- ✓ Talde batekin jaisten den irakaslea jolastokian gertuko da zaintza tokatzen zaion irakasle bat agertu arte
- ✓ Txandetan, egunero, hiru zikloetako irakasleak izango dira.
Jolastokien banaketa:

	1. JOLASTOKIA	2. JOLASTOKIA	KOLUNPIOAK
Astelehena	1. maila	5. 6. maila	2. maila
Asteartea	2. maila	4. maila	1. maila
Asteazkena	BALOIRIK GABEKO EGUNA		3. maila
Osteguna	3. maila	5. 6. maila	2. maila
Ostirala	1.- 2. maila 3.aurka	4. maila	1. maila

	BEHATZEN DIREN LEKUAK	IRAKASLE KOPURUA	EGITEN DIREN EKINTZAK	SORTZEN DIREN ARAZOAK	ERANTZUNA
HH	Patio estalita eta kolunpioak -Eskolako sarrera (<i>atean irakaslea arduratuk oda</i>) -Kolunpioak -Gradak -Harresia	Txandaka 1 1 1 1	-Kolunpioak -Egunero irakasle bakoitzak jostailu desberdinak ateratzen ditu: -Sokak eta saltatzeko gomak -Pilotak -Jostailu txikiak (panpinak, kotxeak. -Eraikinak -Klarionak	-Haien borrokak -Batek duenean jotzen	Gradetan jesarri arazoa konpondu arte eta konpondutakoan gatazkan bitartekari izandako andereñoarengana joan azaltzeko.
	BEHATZEN DIREN LEKUAK	IRAKASLE KOPURUA	EGITEN DIREN EKINTZAK	SORTZEN DIREN ARAZOAK	ERANTZUNA
LH	Jolastoki estalita eta Kolunpioak -Eskolako sarrera -Kolunpioak eta eskailerak	1 1	-Kolunpioak -Futbola -Soka-dantza -Haiek ekarritako jostailuak -Jolasak euskaraz (hilean behin) -Gradetan mahai jolasak (xakea, partxisa, kromoak, ...) -Klarionak	-Haien borrokak -Batek duenean jotzen	-Elkar jotzen direnak bistan dagoen leku batean gelditzen dira bie haserrealdia pasatu arte, elkarri barkamena eskatu eta gatazkan bitartekari izandako andereñoarengana joan azaltzeko. -Bistan dagoen leku batean gelditzen da denboralditxo bat. Barkamena eskatu behar du eta jolastera doanean berriro, duen jokaera behatzen da; berriro jotzen badu bidaltzen dugu eskolako barruko sarrerara eta ez da patiora bueltatzen. Han beti dago atezaina edo jantokiko arduradunaren ikusipean.
	Erdiko Jolastokia <i>(Behatzen da erdiko jolastokia eta beheko jolastokirako eskailerak)</i>	1	-Zelai errea -Saski-baloia -Haiek ekarritako jostailuak -Jolasak euskaraz (hilean behin)	-Futbola edo kolunpioetako eguneko txandak errespetatzen ez direnean.	-Errespetatzen ez dutenek, eskolako sarreran dagoen jolastokien banaketa egutegia begiratu behar dute, nori dagokio baieztatzeko.
	Beheko jolastokia <i>(Jolastokiko eskuma eta ezker aldean kokatuta)</i>	2 1(<i>lehiaketak daudenean</i>)	-Futbola -Haiek ekarritako jostailuak -Jolasak euskaraz (hilean behin)	-Irakasleei errespetu faltak	-Falta egiten duenak jolastokia utzi behar du, eskolako barruko sarreran edo zuzendaritzan gelditzen da.
	Gimnasioa	1	-Zelai errea txapelketa	-Irabazle eta galtzen dutenen arteko iskanbilak	-Taldea arazoduna sailkapenetik kanpo gelditzen da. -Taldeen arteko iskanbilak mantentzen badira, lehiaketa bertan behera uzten da.
	Liburutegia	1	-Etixerako lanak edo klaseko lanak amaitzen ez dutenek bertan amaitzen dute		

- ✓ Asteazkena baloirik gabeko eguna izango da.
- ✓ Baloia patiotik ateratzen denean, erdiko jolastokian dagoen irakaslea ikasle batekin joango da baloiaren bila.
- ✓ Ikasleei **kasu egitea** ezinbestekoa da
- ✓ Ikasleek geletan bakarrik ezin dira egon. Atsedean orduan ekintzaren bat egin behar badute beti irakasleren bat egon behar du.
- ✓ Litxarkeriak, azala duten fruitu lehorrak eta opil-industrialak debekatuta daude, eta atsedendietara ogitartekoa, gailetak, fruta edo zukua ekar daitezke.
- ✓ Jolastokiak ahalik eta garbien utzi behar dira, (paperak eta fruta-mutxikinak). Geletan, arauekin batera komentatu.
- ✓ Ikasle batek odol jariora badu edo botaka egiten badu, lekua lixibaz garbitu behar da (garbitzaileari esan).
- ✓ Jolastokitik bueltatzerakoan, xaboia banatzen zaie eskuak garbitzeko.

- ✓ **Egun euritsuetako atsedendiak.**

- ✓ 2011-12 ikasturtean jolastoki estalia lortu dugunez, hemendik aurrera euria egiten duenean denok patio estalian elkartuko dira, baina baloirik gabe. Ikusiko bagenu erabakia ez dela egokia beharrezkoak diren aldaketak egingo genituzke,
- ✓ .Jolasak euskaraz: Hilearen azken asteazkenetan, euria egiten badu, H. Hezkuntzak eta 1. zikloak gelan egiten dituzte jolasak.

- ✓ **Dantzak atsedendietan**

- ✓ Ikasleen eskaeraren arabera, 3. hiru hilekoan entseguak egingo dira.
- ✓ Norbaitek bere gela uzten badu (atsedenaldi txanda ez duenean) dantza egiten duten ikasleekin gelditu behar du, **ikasleek ezin dute gela bakarrik egon**, eta geletatik sartzen eta irteten ibili.

Haur Hezkuntza

- ✓ Zaintza txanda bakoitzean hiru irakasle egongo dira. Gutxienez horietako bat zikloko tutorea izango da.

- ✓ Zaindu behar diren guneak hauek izango dira:
 - a) Jolastordua eskolako sarrerako jolastokian bada:
 1. Sarrera nagusiko atea
 2. Gimnasia jaisteko eskailerak
 3. Jolastokia

Ateko gunea zaintzen duenak atea giltzaz itxita edukiko du (atezaintzan dago). Txanda amaitutakoan bere lekuan utziko du . Atea giltzaz itxi gabe badago ezin da inolaz ere atea irakaslerik gabe utzi

 - b) Jolastordua beheko jolastokian bada:
 4. Jolastoki horretako sarrera
 5. Goiko jolastokira doazen eskailerak

6. Jolastokia

Jolastorduko denbora amaitzen denean, sarrera zaintzen egon denak, kanpoko atea itxiko du eta eskolako sarrerako atea ireki. Orduan igoko dira ikasleak.

Gune hauek urte osorako finkoak izan daitezke edo aldatzen joan. Jolastordu bakoitzean erabakiko da

- ✓ .Jolastokia zaindu behar duten irakasleak oso ordukoak izan behar dute.
- ✓ Ikasleek jolastokira tutorearekin edo klasean dagoen irakaslearekin jaitsi behar dute. Jolastokia zaindu behar dutenak jaitsi ez badira, bera geratuko da norbait etorri arte. **Ikasleak ez dira inoiz jolastokian bakarrik geratuko.**
- ✓ Patioetan **inor ez dela geratzen** ziurtatu.
- Ezin da poterietara, , hesietara edo saskibaloiko kanastetara igo
- Jolastokira joan aurretik komunitik pasa direnez, ez da beharrezkoa jolas garaian joatea. Norbait joaten bada adi egongo gara berriro jolastokira bueltatzen dela ziurtatzeko.
- ✓ Ezin badugu patioa zaindu txanda aldatuko diogu beste irakasle bati jolastokian beti hiru irakasle egon daitezten. Lehen Hezkuntzako kasuan zaintza baten bidez konponduko da.
- ✓ Jolastorduan tutoreak jakin beharreko zerbait gertatzen bada (norbait erori, arazoren bat konpondu gabe, istiluren bat) jolastordua amaitzen denean , tutoreari esan.
- ✓ Haur Hezkuntzako tutore batek komuneko papera eramango du patioa
- ✓ Hiru urtetako ikasleek egokitze epean (iraila eta urriko lehenengo bi asteak) erdiko patioan egongo dira. Garai horretan beste ikasleek ez dute horretara igo behar.
- ✓ Bi urtetako ikasleek jolastorduan ziboetan egongo dira .
- ✓ Patioan ezin da gailetarik jan.

4- Materiala

- ✓ Areto edo baliabide didaktikoak erabiltzen dituzten irakasle guztiek materiala eta areto bera ahalik eta txukunena utziko dituzte , ondoren doazenak oztoporik gabe erabili ahal izateko.
- ✓ Irakasleak ziurtatuko du ikasleek jarduera zehatz batean erabilitako materiala, behar bezala eta kasuan kasuko lekuan gordetzen dutela. Behin ikastordua amaituta, gelak txukun egon beharko dute, zorian ezer utzi gabe.
- ✓ Debekatuta dago gelako altzariak lekuz aldatzea edo bertatik kentzea galdetu gabe.
- ✓ Ikasturte amaieran gela bakoitzeko material didaktikoa (horma-irudiak, fitxak, ipuinak, olerkiak,...)ondo eta txukun eta antolatuta geratu behar dute

5. Informatika

- ✓ Zerbitzarian dauden CDak IKRT-ko arduradunaren baimenik gabe ezin dira hartu eta ezin dira eskolatik atera.
- ✓ Geletako ordenagailuen arazoak zerbitzarian dagoen orrialde batean apuntatu eta arduradunak konpontzen saiatuko dira.
- ✓ Informatika gelako CDak erabili ondoren **bere tokian uzten dira**, hurrengo saioan datozenei lana errazteko.
- ✓ Saio bakoitzean erabilitako programak eta materialak apuntatuko ditugu.
- ✓ Informatika gelako atea itxita egon behar du, ondoko gelakoei barruko doinuarekin enbarazurik ez egiteko.

- ✓ Informatika gelako **ordenagailuak itzaltzea** , goizeko eta arratsaldeko , azken saioetan (12,00etatik 13.00etara eta 15´45etatik 16´30etara) egon direnen ardura da . Azken saioetako norbaitek ez badu erabiltzeko asmorik aurrekoari esan.
- ✓ Irakasleen gelako ordenagailuak, arratsaldeko azken saioan erabiltzen duenak amatatuko du.
- ✓ Geletako ordenagailuak eta **erregeletak ere amatatu** behar dira. Gelatik pasatzen den azken irakaslea arduratuko da.

6. Ikasturtearen hasierako laguntzak

- ✓ Lehenengo egunean tutore bakoitza bere taldearekin geldituko da.
- ✓ Bigarren egunean H. Hezkuntzan laguntzarik eman behar ez duten espezifikoak klaseak ematen hasiko dira. Haur Hezkuntzako 3 urteko geletan laguntza behar-beharrezkoa da.
- ✓ Laguntza hauek egin behar dituzten irakasleei euren txanden ordutegia emango zaie.
- ✓ Egokitzapen garaia irailan egiten da (goizeko jardunaldia).
- ✓ Egokitzapen epean, laguntza gelako irakasle guztiek lagunduko dute.
- ✓ Ahaleginak egingo dira gela bakoitzera irakasle bera joan dadin.
- ✓ H. Hezkuntzako atsedendietan, 4 eta 5 urteko tutoreak eta Haur Hezkuntzan atsedendiak zaintzen dituzten irakasleak bakarrik irtengo direnez, urrira arte txandak euren artean antolatuko dituzte

7. Irakasle eta hezitzaileen zaintzak

- ✓ Irakasleen faltak beste irakasle batek beteko ditu (zaintzakoak). Aritu bat falta denean tutoreak erabakiko du nor geratuko den gelan, bera edo zaintza duen irakaslea .
- ✓ Gelara joan baino lehen irakasleen gelatik pasatu behar da, faltan orrialdea begiratzeko. Horrela egiten ez badugu lankideren bat falta denean ikasleak denbora luze bakarrik egon daitezke.
- ✓ Zaintza saioetan irakasle gelan egon behar da ustekabekoak gerta daitezkeelako.
- ✓ Hezitzaileen bat falta bada, ikasketa buruak edo beste hezitzaile batek dagokion irakasleari esango dio.
- ✓ Hezitzaile baten falta, ahal bada, beste hezitzaileen artean beteko da.

8. Irteera eta gelaz kanpoko ekintzetarako laguntzak

- ✓ Eskola osoak ekintza baten parte hartzen duenean, irakasle guztiek laguntza emango dute dagokien geletan.
- ✓ Ekintza, ziklo batek bakarrik egiten duenean, ziklo horretan laguntza ematen duten irakasleek ez dute klaserik emango (ziklo berekoak izan daitezen saiatuko gara). Beste tutoreei abisatuko zaie taldeekin gera daitezen.
- ✓ Ikasle batzuen jarrera ikusita ikasle horiek ekintza batzuetan parte hartzea baloratuko da. Ekintza egokia dela ikusten bada , behar den laguntza jarriko zaie. Komenigarria ez dela pentsatzen bada, familiarekin komentatuko da erabaki egokia hartzeko.

9. Laguntza gelan kasu berriak ebaluatzeko jarraitu behar den protokoloa

- ✓ Egindako behaketaren berri aholkulariari emango zaio.
- ✓ Mediku edo espezialista batek ikasle baten informe bat eskatzen duenean, aholkulariarekin irakurri eta komentatu behar da. Bertan idazpurua azaldu behar da (nork eskatu duen eta zertarako). Aholkulari eta tutorearen artean nola bidali erabakiko da (famiaren bidez, postaz, posta zertifikatuaz,...)

10. Egoera gatazkatsuetan ikasleriarekin jarraitzeko protokoloa Egoera gatazkatsua sortu duten ikasleekin, agiri bat bete behar da egoera aztertuz eta jokatzeko arauak adostuz.

- ✓ Agiri hauek gorde egingo dira egoera errepikatzen familiari jakinaren gainean jartzeko.

(dokumentuaren amaieran eranskina atxikitzen da)

11. Familiak

- ✓ Ikasleen helbideak eta telefonoak baieztatu, eta aldaketak gelako zerrendan berriatzi eta zuzendaritzara pasa..
- ✓ Oharrak eta zirkularrak FAMILIAKA bidaltzen dira eta txikienari ematen zaio.
- ✓ Familiek egin behar dituzten ordainketak: Gurasoen Elkarteko kuota, eskola aseguru (jantokikoek derrigorrez ordaindu behar dute), eta txango eta irteera guztiak.
- ✓ Ikasturtearen hasieran programatutako irteeretara joateko baimena sinatu behar da ikasleek jardura hauetan parte hartu ahal izateko
- ✓ Egiten diren irteera guztien berri familiei eman behar zaie. H.Hn eta 1. ziklokoek ohar baten bidez, eta 2. eta 3. ziklokoek agendaren bidez
- ✓ Familiekiko bilerak, irteerak, zorriak tratatzeko orriak, eta abar, gelako karpeta,, irakasleen gelako artxibagailuetan edo Orokorra-Dokumentuak karpeta daude.
- ✓ Tutore batek edo irakasle espezifikoko batek familia batekin bilera egin behar badu, eta uste badu ikuspuntu oso desberdinak edukiko dituztela, bilera egiterakoan, hobe da talde horretako beste irakasle batekin edo zuzendaritza taldeko norbait egotea.

12. Eskola hustea

- ✓ Gela guztietan Eskolako Husteko Planaren argibideen orria bistan egon behar du.
- ✓ Languntza ematen ari diren irakasleak edo ume gutxiek lan egiten ari direnak, irakasleak ondoko geletan utziko dituzte eta solairu hori husten lagunduko dute.
- ✓ Larrialditako logotipoa duten gelak solairuko arduradunak dira. Beraz, une horretan gelan dagoen irakaslea izango da solairu horretako arduraduna-

✓ **Solairuko arduradunak:**

- 1. solairuan
- 2. solairuan.....
- 3. solairuan.....

- ✓ Zuzendaritzara doan lehenengo irakaslea Gimnasia joango da abisatzera eta ondoren ikasle guztiak bilduko diren jolastokia antolatuko du.
- ✓ Ezin da igogailua erabili

13. Ikastaroak eta lehiaketak

- ✓ Ikastaro eta lehiaketen berri ziklo koordinatzaileak emango du eta epea amaitu arte irakasleen gelako kortxoan deialdia jarriko da.

Familiei dagozkien betebeharrak.

1. Sarrerak eta irteerak.

- ✓ Senideek ezin dute eskolan sartu, ume guztiak sartu eta sarrera libre geratu arte.
- ✓ Irakasle bati mandatu bat eman nahi badiozue, ohar baten bidez eman edo atezainaren bidez egin.
- ✓ Irteteko orduan, familiek ate aurrean dagoen marra gorriaren atzean itxaron behar dute umeak lasai ibili daitezzen eta metaketak egon ez daitezzen.
- ✓ **Euria egiten duenean** bereziki ahaleginak egin sarrerako atean ez pilakatzen ikasleei eta irakasleei sartzeko traba egiten diezuelako. Sarrerara gehiegi hurbiltzen bazarete, haurrek ezin dituzte ikusi bere bila etorri direnak. Era berean 2 urteko gelako sarrerako aldatxoa libre utzi.
- ✓ Igogailua erabili behar bada atezainari esan behar diogu eta pertsona batek lagundu behar du

2. Hutsegiteak.

- ✓ Geletan, hutsegiteen kontrol zehatza eramaten da egunero.
- ✓ Ikasleen hutsegiteak eta berandu etortzeak dagokion irakasleari jakinarazi behar dizkiozue.
- ✓ Ikasleak eskola orduetan eskolatik irten behar duenean, hori argitzeko ohar bat bidali behar duzue, eta gero umearen bila etorri.
- ✓ Eskolako orduetan ikasleek ezin izango dute inondik ere bakarrik eskolatik irten, beraz, familiako norbaitek etorri beharko du bila.

3. Osasuna eta garbitasuna.

- ✓ Botikak: ezin dugu errezeta gabeko botikarik eman, ezta infusiorik ere alergia direla eta..
- ✓ Zorriak edo bartzak badituzte tratamendu egokia eman behar zaie garbia egon arte. Ondokoei ez kutsatzeko hobe da dena ondo egon arte eskolara ez etortzea.
- ✓ Atsedendietan ezin dira gozokirik edo opil industrialak ekarri.

4. Hitzordua eskatzeko.

- Irakasle batekin hitzordua eskatzeko, ohar bat edo agendaren bidez egin ahal da.
- Gurasoen eguna: Astelehenak 13: 00 etik 13: 30 etara.
- Eskolako zuzendaritza taldearekin hitz egiteko: astelehen, asterate, asteazken, eta ostiraletan 9: 15 etatik, 10: 30 etara.

5. Datuak

- Edozein daturen aldaketa (helbidea, telefonoak, helbide elektronikoa, kontu zenbakia...) ahalik eta azkarren zuzendaritzari jakinarazi behar diozue.
- Kontutan hartuta telefonoak zuen seme-alabak dituen arazoak jakinarazteko erabiltzen ditugula (gaixotasuna, sukarra, istripuak...) komenigarria da zenbaki batzuk

edukitzea zuekin lehenbailehen harremanetan ipintzeko. Aldaketak segituan jakinarazi behar dituzue.

- Zirkularrak posta elektronikoaren bidez jaso nahi badituzue zuzendaritzan jakinarazi.

6. Eskolaz kanpoko ekintzak.

- Gurasoak eskolan sartu behar dutenean (eskola-kanpoko ekintzak, bilerak,...) beti ikasle guztiak irten ondoren sartuko dira (16:45ean)
- Ikasleak eskolaz-kanpoko ekintzetan dauden bitartean familiei eskatzen zaie mesedez lan egiteko beharrezkoa den isiltasun giroa mantentzeko
- Eskolako atea 18:30etan itxiko da, eskolaz kanpoko ekintzak bukatzen direnean
- Eskolaz kanpoko ordutegian ikasleek komunera joan behar badute heldu batekin joango dira.
- **Eskolako gune osoan, jolastokietan barne, ezin da erre.**
- **Eskolako gune osoan, jolastokietan barne, ezin dira animaliak egon.**
- Ikasleekin ahalegin handia egiten ari gara ingurumena zaintzeko. Beraz, mesedez ez bota zarama lurrera, landareak zaindu eta komunak erabili.
- Arroparen bat galtzen bada, galdetu ahalik eta azkarrena atezaintzan, hilabete bat pasa eta gero, jantziak, arropa jasotzen duten gunetara eramaten baititugu.

7. Iradokizunak eta kexak

Zuen iritziz ikastetxe honetan zerbait txarto balego edo era desegokian funtzionatuko balu, konponbideak aurkitzeko honako pausu hauek jarraitzea gonbidatzen zaituztegu:

- ✓ Zentroko pertsona batekin lotuta badago zuen arazoa, berarekin zuzen-zuzenean hitz egitea izango litzateke komenigarriena.
- ✓ Gustura ez gelditzekotan Zuzendariarengana edo Ikasketa- Buruarengana jo dezakezue.
- ✓ Guzti hau egin ondoren oraindik ez bazaudete konforme, Guraso Elkartera joan , hauen ordezkariak Eskola Kontseilura eraman dezaten.
- ✓ Zuen arazoa Eskolako funtzionamendu orokorrarekin zerikusirik badu, Zuzendari Taldearengana joan zaitezke.

JANTOKIKO FUNTZIONAMENDU ARAUAK

IKASLEAK

- Jantokiko sarrera eta irteerak era lasai eta ordenatuan egin behar dira, eta dagokigun lekuetatik.
- Bai pasabide eta jantokian tonu baxuan hitz egingo dugu.
- Denetatik jango dugu, nahiz eta ipinita dauden kopururik baxuenak izan, eta ez dugu janaria jantokitik aterako.
- Bazkaltzerakoan jantokiko tresnak era egokian erabiliko ditugu eta ez dugu beraiekin jolastuko edo era desegokian erabiliko.
- Bazkaltzerakoan beti eserita egongo gara, eta zerbait behar dugunean eskua altxatuko dugu mahaiaren begirale arduraduna etor dadin.
- Jan aurretik beti eskuak garbituko ditugu.
- Janaria modu egokian erabiliko dugu (ez elkarri ogirik bota....)
- Erabili dugun mahaiaren inguruko lurra ahalik eta garbiena utziko dugu.
- Zerbaitegatik haserretzen bagara, ez gara mahaitik altxatuko eta ez dugu jantokitik alde egingo.
- Bazkaltzeko orduan komunera ez joaten ahaleginduko gara, hau da, jantokira sartu baino lehen joango gara. Derrigorrean joan behar badugu gure begiraleari baimena eskatuko diogu.
- Bazkaldu aurretik ez dugu gozokirik, gailetarik edo janaririk jango, gosea kenduko digutelako.
- Jantokiko orduetan ezin da eskolatik irten.
- Arauak beteko ditugu eskolako instalazioak errespetatuz eta besteen eskubideak eta monitoreen gomendioak jarraituz.
- Arazoak hitzen bidez konponduko ditugu eta ez ikaskide edo monitoreekin borrokatuz edo hitz eta keinu itsusiak erabiliz
- Norbaitek edo zerbaitek haserrarazten bagaitu begiralearengana joango gara eta gertatzen zaiguna kontatuko diogu.

FAMILIAK

- Jantokian geratzea borondatezkoa denez ikasle guztiek eta euren familiak behartuta daude jantokiko arauak betetzen.
- Segurua derrigorrezkoa da jantokian gelditzen direnentzat
- Beharrezkoa da ikasleek denetatik jan dezaten, baita heureen gustukoak ez direnak ere, jantokian eskaintzen diren menuak arituek ipinitako dieta jarraitzen baitute eta gure ikasleen adinerako egokiak dira
- Alergiak edo janari bereziak behar izan ezker, eta beti ere sendagileak agindupean bada, menu bereziak prestatuko dira.
- Familiek jakin behar dute ikasleek jantoki orduan eskolatik ezin dutela irten . Zerbaitegatik ikasleak ordu horietan eskolatik atera behar izango balu, jantokiko arduradunari ohar baten bidez jakinarazi beharko litzateke eta umearen kargu egingo den pertsona nagusi bat etorri beharko luke bila.
- Asteazkenetan etxera bakarrik joan ahal izateko jantokiko arduradunak duen baimen inprimakia beteta ekarri behar dute.
- Jantokiko ordutegian ikasleak botikaren bat hartu beharko balu, botika eta ohar bat edo sendagilearen errezeta ikasleen datuekin eta dosia eta zenbat denboretan hartu beharko lukeen jantokiko arduradunari eman beharko litzaioke.
- Ikasle bat gaixorik dagoela ikusten badugu (sukarra, ondoeza, zorabioa, oka egitea...) familiari deituko zaio. Istripua egongo balitz, eskolako seguruko sendagileari eta familiari deituko zitzaien.

- Jantokian noizbehinka geratu nahi duten ikasleek arduradunari 48 orduko aurrerapenez jakinarazi beharko liokete. Larritasun bat sortzen bada egun berean esan daiteke. Bi kasuetan ohar bat eman behar zaio tutoreari eta beste bat jantokiko arduradunari, bai eskura edo atezainaren bidez.
- Ikasle batek nahita jantokiko tresnak edo altzariak apurtuko balitu bere familiak ordaindu eta berritu beharko luke.
- Jantokiko arduradunaren ordutegia familiekin banaka egoteko hau izango da: egunero 09:00etatik 09:45tara eta 13:30etatik 15:00etara
- Begiraleak familiekin asteazkenetan 14:00etik 15:00etara egongo dira.

ARAUAK EZ BETETZEA

Ikasleek eskolako arauekin bezala, jantokiko arauak ere bete beharko dituzte. Arauak betetzen ez badituzte eta elkarbizitzari edo besteei kalte egiteko moduko portaera desegokiak badituzte, BARNEKO ARAUTEGIAN agertzen diren neurri zentzatsaileak hartuko dira, euren artean jantokian geratzeko baimena etetea.

KUOTAK

Jantokiko kuotak Eusko Jaurlaritzak ipintzen ditu.

Ordaindu beharrekoa, jantokiko egunen kopurua (goizeko eta arratsaldeko lehenengo egunetik) eguneroko menuaren prezioagatik biderkatu eta 8 hilabete artean zatitzerakoan ateratzen da. Ekainean, beraz, ez da erreziborik pasatzen. Irailean goizeko lanaldietako egunak aparte kobratuko dira.

Erreziboak banketxeko helbiderapenen bidez egingo dira hilabetearen lehenengo 10 egunetan irailako goizeko jardunaldiko egunak kenduz. Egun horiek eskolan ordaindu behar dira.

Bueltatutako erreziboak jantokiko arduradunari ordainduko zaie eskolan eta 2 errezibo baino gehiago bueltatzen badizkigute jantokitik kanpo gera daitezke.

Kuoten itzuliak

Diru itzultzeak azken hiruhileko amaieran egingo da.

Eusko Jaurlaritzako bekadunek ez dute diru itzulerarik edukiko.

Beka hori ez duten ikasleei dirua itzuliko zaie beti ere 48 orduko aurrerapenez jakinarazi badute eta jantokira ez etortzea bi aste jarraian edo gehiago luzatzen bada.

Asteazkenetan geratzen ez diren bekarik gabeko ikasleei diru hori itzuliko zaie.

Jantokiko langileen grebetan eta 2009ko ekainaren Eskola Kontseiluko aktan agertzen den bezala jantokia hileka ordaintzen duten familieei eta egun horietan jantoki zerbitzua erabili ez dutenei egun horietako dirua bueltatuko zaie eskolak erabakitako moduan

ONARTZE IRIZPIDEAK

Kueto HIKo jantokian gehienez 300 ikasle sartzen dira.

Plazak irizpide hauekin beteko dira:

- Eusko Jaurlaritzaren bekadunak
- Eskolako beste ikasleek
- Eskolan lan egiten duen edonork, irakaslea izan edo ez

- Epez kanpo ez da inoren izenik hartuko, behar larririk edo oso justifikatuta ez badago behintzat, eta horretarako gurasoek lan egitea beharrezkoa da.
Era berean ez dira noizbehinkako bazkaltiarak onartuko premiazkoa ez bada.

IRAKASLEEN EDO JANTOKIKO LANGILEEN GREBA

Irakasle batzuk greba egingo balute familiek jantoki zerbitzua erabiltzeko aukera edukiko dute baina euren seme-alaben bila hiruretan etorriko beharko lukete, hau da, klaseak berriro hasten direnean.

Greba jantokiko langileena bada, eragiten dieten ikasleen gurasoei ohar bat bidaliko zaie. Horretarako ikasturte bakoitzaren hasieran jantokiko arduradunak begirale bakoitzari dagokion ikasle zerrenda egingo du. Nahiz eta gure jantokiko barne antolaketan lehen hezkuntzako taldeak finkoak ez izan, Eskola Kontseiluak horrela erabaki zuen greba egunetan jantokiko zerbitzua antolatu ahal izateko.

ESKOLAKO LIBURUEN KUDEAKETA SOLIDARIOA

ZER ESAN NAHI DUGU LIBURUA TXARTO ZAINDUTA DAGOELA ESATEN DUGUNEAN

Argi eta garbi ikusten denean liburua txarto erabili dela: orbabak, bustita egotea, zimurtuta egotea, orriak apurtuta edo urratuta .

Orriak falta direnean.

Orriak margotuta daudenean.

Liburua galdu duelako, edo gaizki erabiltzeagatik ezinezkoa denean liburu hori beste norbaiti uztea familiak liburu berria ekarri beharko du

ESKOLA 2.0

Ekipoen erabilera, zaintza eta mantendua

1.- Ordenagailu mini--eramangarriak ikasleak klasean erabiliko dituzte irakasleek ipinitako eskolako lanak egiteko . Lanak ahal den neurrian eskolan bertan egingo dira baina ordenagailua etxera eramateko aukera egongo da irakasleek horretarako baimena ematen badute.

2.- Ikasleek eta familiak konpromisoa hartzen dute ekipoa egoera onean mantentzen, kanpoko itxura aldatu gabe, eta sistema eragilearen konfigurazioa edo sartuta dituen programetan aldaketarik egin gabe. Beraz ordenagailu mini-eramangarriaren erabilpenean araua hauek errespetatuko dira:

- a) Mini-eramangarria beti bere zorroan era egokian eramatea
- b) Zaindu mini-eramangarria hezetasuna, bero edo hotz iturrietatik , eguzkiaren izpi zuzenetatik , hautsa eta bereziki likido isurietatik babestu.
- c) Ez utzi ekipoa, erortzeko edo kolpeak jasotzeko arriskuan, eta ez ipini gauza astunik bere gainean,
- d) Ez heldu ekipoa pantailatik , eta ez jo edo marrarik egin bertan.
- e) Ekipoko osagaiak ez maneiatu eta konpontzen ez ahalegindu , ez eta kartutxoa edo bateria ere. Kartutxo originala besterik ez erabili.
- f) Aldiro eramangarria garbitu, baina beti itzalita dagoenean eta oihal suabe batekin eta kontu berezia eduki pantaila garbitzerakoan, produktu kimikoak erabili gabe.
- g) Ezin dira jolasak, programak edo eskolak onartu gabeko inongo edukirik.
- h) Ekipoan bakarrik sar daitezke eskolan bidalitako lanen inguruko informazioa.
- i) Eskatzen duten adina betetzen ez badute, ez sartu internetek eskaintzen dituen baliabide eta bereziki , web orrietan .Honen inguruan familiaren arduraren izango da ikaslea eskolatik kanpo zein edukitan sartzen den .
- j) Eskolara eramangarriaren bateria beti beteta ekarri behar da.
- k) Eskolan aurrez ikusita dauden garaietarako ekipoa eramateko asmorik ez badago edo edozein arazo sortzen bada eskolari jakinarazi
- l) Eskolak eta irakasleek ipinitako araua bereziak bete

3.- Era berean familiak bete beharko du:

- a) Eskolako irakasleekin batera lan egin hezkuntza digitala ziurra eta arduratsua izan dadin.
- b) Zuen seme-alabak eskolak eta irakasleak ipinitako arau hauek betetzen dituela zaindu, bai ekipoaren zaintzan, mantenuan edo arau berezietan.
- c) Zuen seme-alaben ekipoaren erabilpena ikuskatu , lanak irakasleak agindutako eran egiten lagunduz eta ohitura digitalaren gainean arduraren hartuz, bereziki zein web orrietan eta sare sozialetan sartzen den.

- d) Interneten erabilpen hezitzailea sustatu, eta sarea erabiltzen duten beste pertsonenganako errespetua bultzatu.
- e) Eskolari jakinarazi eskolatik kanpo dagoenean mini-eramangarriak eduki dituen matxurak edo akatsak .
- f) Garantiatik kanpo geratzen diren matxurak ordaindu beharko dira.
- g) Bere ardurapean eta eskolatik kanpo mini-eramangarria apurtu, galdu edo lapurtzen badiote ordezkatu egin beharko du.
- h) Erabilerak berarekin dakarren hondatzeaz gain , mini-eramangarria jaso zen egoera berean bueltatu behar da.

Ikasle batek ordenagailua eraman behar badu ondoko eranskina sinatu behar du.

ERANSKINA

Ekipoa maileguz emateko dokumentua
2010/2011 ikasturtean Eskola 2.0
programako ordenagailu txiki eramangarria
hezkuntza-erabilerarako laga, zaindu eta
mantentzeko konpromisoa

CEP KUETO LHI

Kodea:014432

c/ Gran Via 52,

48910 Sestao

Helbide elektronikoa Telefonoa

Ikaslearen datuak

Izen-abizenak NAN

Tutorea Aita/Ama Legezko tutorea

Ordezariaren izena Ikasturtea/Gela

Etxeko helbidea PK

Herria Udalerria

Helbide elektronikoa Telefonoak

Dokumentu hau sinatzearen bidez, goiburuan adierazitako datuen jabe den ikaslearen ordezkariak —bere eta familiaren izenean— eta ikasleak onartzen dituzte ekipoa hezkuntzarako erabiltzeko, zaintzeko eta mantentzeko arauak, eta arauok beteko dituztela hitzeman dute. Ekipoa nominalki emango zaie ikasleei, Eskola 2.0 programaren barruan. (Ikus Arauak atzealdean)

Esleitutako ordenagailu txiki eramangarriaren serie-zenbakia idaztea

Egiazta ezazu adierazitako serie-zenbakia bat datorrela, zehazki, ekipoaren oinarrian ageri denarekin.

Zenbakia desberdina bada, jakinarazi ikastetxeko arduradunei, zuzen dezaten.

Serie-zenbakirik ez badago, idatz ezazu eskuz, eta egiaztatu bat datorrela, zehazki, ekipoaren oinarrian ageri denarekin.

Ikasleari esleitutako ordenagailu txiki eramangarriaren serie-zenbakia:

Serie-zk. bat dator ekipokoarekin Serie-zk. ez dator bat eta desberdintasunen berri eman dut
....., 201 ekorena.

Izenpetua:

Tutorea Aita, ama

ikastetxeko zigilua

ERANSKINA



ARAZOEN KONPOKETA

DATA:

IKASLEA:

IRAKASLEA:

GERTATUTAKOA: (Nork, Nori, Zer, Zergatik, Noiz, ...)

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

NOLA SENTITZEN NAIZ? (Haserre, Triste, Amorru bizian, Minduta, Bakarti)

.....
.....
.....
.....
.....

NOLA KONPONDU DEZAKET ARAZOA?

.....
.....
.....
.....
.....
.....

Sinadura